eitb

# Txostena **2020** Balance



www.eitb.eus

Argitaratze data / Fecha de publicación: 2021/04/14



Inork espero ez zuen pandemiaren eraginez, 2020. urtea ez da nolanahikoa izan. Hala, EITBk, aldez aurretik mugarri garrantzitsuak gogoratzeko eta ospatzeko asmoa bazuen ere, **egoerara egokitu, eta covid-19ra nabarmen moldatu behar izan du bere zeregina.**

Pandemiak, EITBren hedabideen lan egiteko moduak aldatzeaz gainera, **zerbitzu publiko izaeran azpimarra berezia** jarri du. Informazioa eta entretenimendua bermatzeko ahalegin handia egin dute Taldeko hedabideek. Orobat, hainbat ekimen jarri ditu abian itxialdian zegoen jendeari babesa emateko, baita covid-19aren inguruan ikertzen jarraitzeko ere. Horrela, **EITB Maratoia** elkartasun kanpainaren gaia **covid-19a** izan zen, eta guztiok bilakatu gintuen kausa. Bertso katea ardatz hartuta, gizarteak erruz hartu zuen parte maratoian, eta ikerkuntzarako **700.000 eurotik gora** bildu ziren.

Iazkoa, bestalde, pandemiaren urtea ez ezik, **Gaztea EITBko irrati gaztearen 30. urtemugaren urtea ere izan zen.** 2020an zehar *gure kontu* lelopean, entzule eta jarraitzaileekin ospatzeko ekimen arrakastatsuak egin ziren, Gaztea Sarien ekimena, besteak beste. Euskarazko irrati formula egiten duen Gazteak gogotsu jarraitzen du “ikusten den” euskal irratia egiteko nahian ahalegintzen eta euskarria dena dela gazteak erakar ditzaketen edukiak egiten.

2020ak komunikazio taldearen sozietate-egituraren aldaketa ekarri du. Azarotik, EITB herri-erakundeak eta **EITB Media SAUk** osatzen dute egitura berria. Aldaketok egiturari eraginkortasuna emateko eta ingurune digital berrira moldatzeko egin dira batik bat. Eta sozietate-egituraren aldaketaren ondotik, **zuzendaritza aldaketa** egokitu zen. **Maite Iturberen** lekukoa hartu du **Andoni Aldekoa** zuzendari nagusiak eta hasieratik, aurrekoek egindako lana eskertu nahi izan du.

2020 no ha sido un año cualquiera, a causa de una pandemia que nadie esperaba. **EITB,** que tenía previsto celebrar y acometer en 2020 importantes hitos y proyectos, **también tuvo que amoldarse a las circunstancias, y ajustar su cometido y su día a día a la covid-19.**

La pandemia, además de cambiar la manera de trabajar de los medios de EITB, **ha puesto un especial acento en su carácter de servicio público**. El Grupo ha hecho y continúa haciendo un gran esfuerzo para garantizar la información y el entretenimiento. Asimismo, puso en marcha numerosos proyectos para apoyar a la ciudadanía durante el confinamiento, y también para seguir investigando sobre el coronavirus. Así, el tema de la campaña solidaria **EITB Maratoia 2020** fue la **covid-19** y nos convirtió a todos y todas en la causa. Una cadena de *bertsos* sirvió para darle vuelo a EITB Maratoia y la sociedad participó de forma generosa, con lo que se recaudaron más de **700 000 euros** para la investigación.

El año pasado fue, por otra parte, **el año del 30 aniversario de Gaztea**. A lo largo de 2020, bajo el lema *Gure kontu* (*a nuestra cuenta*), se llevaron a cabo distintas iniciativas que tuvieron mucho éxito, como los premios Gaztea Sariak, entre otras. Gaztea, con su radio fórmula en euskera, sigue con fuerza y entusiasmo en su empeño de hacer una radio “que se ve”, y elaborar contenidos atractivos en euskera para las personas jóvenes, en cualquier soporte.

2020 también trajo el cambio de la estructura societaria del Grupo de Comunicación. Desde noviembre, la nueva estructura la conforman el ente público EITB y **EITB Media S.A.U.** Estos cambios tienen como objetivo mejorar la eficiencia en la gestión y adaptarse al entorno digital. Tras la modificación de la estructura societaria, vino **el cambio en la dirección** y **Andoni Aldekoa** tomo el testigo en la **dirección general a Maite Iturbe** y desde el principio ha querido agradecer el trabajo realizado por la anterior dirección.




EITBko albiste zerbitzuek bertatik bertara eman zuten *brexit*-aren berri urte hasieran. Londrestik aritu ziren zuzenean Xabier Usabiaga eta Juan Carlos Etxeberria "Gaur Egun" eta "Teleberri" albistegietako aurkezleak, baita Maite Artola eta Dani Alvarez "Faktoria" eta "Boulevard" irratsaioetako gidariak ere. Arreta berezia jarri zioten telebistan zein irratian hitzordu erabakigarri honi korrespontsal eta bidali bereziekin. Halaber, eitb.eus-ek tarte zabala eskaini zion Erresuma Batua Europako Batasunetik ateratzeari, informazio eta eduki guztiak erabiltzeen eskura jarriz.

A principios de año, los servicios informativos de EITB realizaron un seguimiento especial de la salida del Reino Unido de la Unión Europea, con la emisión de sus principales programas en directo desde Londres: "Gaur Egun" con Xabier Usabiaga, "Teleberri" con Juan Carlos Etxeberria, "Boulevard" con Dani Álvarez y "Faktoria" con Maite Artola. Un amplio equipo de corresponsales y enviados especiales informaron sobre el *brexit* en los informativos y programas de radio y televisión. Todos estos contenidos estuvieron disponibles en la web eitb.eus, que ofreció una amplia cobertura al tema en su página de actualidad.




Bigarren Dibidendu Digitalak Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Arabako igorgailu nagusietan 5Grako lekua libre uztea eskatzen du, eta horrek LTDko seinalea itzaltzea ekarri zuen. Hartara, telebistako ikus-entzuleek antenak egokitu eta telebista kanalak birsintonizatu behar izan zituzten. Birsintonizatzeko une hori aprobetxaturik, komunikazio kanpaina zabal bat egin zuen EITBk. Bertan, gainera, ETBko aurpegi ezagunek ikus-entzuleak animatu zituzten urrutiko agintean kanalak berrantolatu eta ETB1HD eta ETB2HD lehen postuetan jartzera.

Ante el apagado de la señal TDT motivado por el Segundo Dividendo Digital, que ha obligado a dejar espacio al 5G en los emisores principales de Gipuzkoa, Navarra, Bizkaia y Alava, las personas usuarias de la televisión digital terrestre han tenido que adaptar sus antenas y después volver a resintonizar los canales de televisión. Dentro de una amplia campaña de comunicación puesta en marcha por EITB, los principales rostros de ETB han animado a aprovechar la resintonización para reordenar los canales en el mando a distancia y poner en los primeros puestos los canales ETB1HD y ETB2HD

Memoria Integratua EGE/IEFE[1]
2019

EITBk bere gizarte, ingurumen eta ekonomia jardueraren berri eman zuen 2019ko Memoria Integratuan. Txostenaren helburua interes taldeei jasangarritasuna eta gizartearen konfiantza hobetzeko egiten den kudeaketa eta ekimenak azaltzea da. Memoria Integratuak jasangarritasunari buruzko informazioa biltzen du, eta baita informazio ez finantzarioaren egoera ere; ondorioz, informazio oparoagoa eskaintzen da. AENORek, sistemak ziurtatzeko erakunde liderrak, egiaztatu du Memoria Integratua. EITBk zerbitzu publikoa nola garatu duen azaltzen du txostenak, Taldearen jasangarritasuna osatzen duten ardatz eta arlo ezberdinen ikusmiratik: enpresa, pertsonak, gobernu korporatiboa, herritarrak, euskara, Euskadi Munduan eta ingurumena.

EITB rinde cuentas de su desempeño social, ambiental y económico en la Memoria Integrada 2019, un informe que tiene como objetivo comunicar a los grupos de interés de la gestión e iniciativas para mejorar la sostenibilidad y aumentar la confianza de la sociedad. La Memoria Integrada es el documento que integra/recoge la información de sostenibilidad y el estado de información no financiera y que, como resultado, incrementa la divulgación de información. Verificada por la entidad líder de certificación de sistemas AENOR, la Memoria Integrada muestra cómo desarrolla EITB su misión de servicio público desde los diferentes ejes que conforman la sostenibilidad del Grupo: la empresa, las personas, la ciudadanía, el euskera, la internacionalización y el medioambiente.



Maiatzean, "Kulturunea" programa jarri zen abian: euskal artisten kontzertu sorta, streaming bidez, Vital Fundazioaren webgunean (www.fundacionvital.eus) eta eitb.eus-en (*Kultura zuzenean* atarian). Ekimena Vital Fundazioaren eta EITBren arteko lankidetzari esker eskaini zen. Belako, Mikel Erentxun, Liher, Gari, Modus Operandi, Eñaut Elorrieta, The Soulbreaker Company, Iñaki Palacios eta bere Banda, Moonshine Wagon, Xabi Solano eta Mikel Urdangarin aritu ziren. Udan ETB1en ere ikusgai izan ziren kontzertu haueк.

Gracias a la colaboración entre Fundación Vital y EITB, en mayo se puso en marcha el programa "Kulturunea", una serie de conciertos de artistas vascos que se emitieron por streaming en la web de Fundación Vital (www.fundacionvital.eus) y en el portal *Cultura en directo* de eitb.eus. En los directos, que se emitieron en verano en ETB1, actuaron Belako, Mikel Erentxun, Liher, Gari, Modus Operandi, Eñaut Elorrieta, The Soulbreaker Company, Iñaki Palacios eta bere Banda, Moonshine Wagon, Xabi Solano y Mikel Urdangarin.

EITBk arreta berezia eskaini zion martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunari, baina aurreko egunetan ere euskal komunikazio taldeko hedabideek berdintasunaren aldeko borrokari buruzko eduki bereziak landu zituzten. eitb.eus-en ere Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko edukiak izan zituzten. Egunean zehar, berdintasunari buruzko erreportaje eta elkarrizketekin batera, M8ko ekitaldiei ere eman zieten jarraipena.

EITB dedicó una atención informativa especial al Día Internacional de la Mujer del 8 de marzo. Días antes, los diferentes medios del grupo de comunicación público vasco abordaron en su programación contenidos especiales dedicados a la lucha por la igualdad desde diferentes perspectivas y el mismo día realizaron un amplio seguimiento de todos los actos organizados. En eitb.eus durante la jornada, junto a reportajes y entrevistas sobre la igualdad, también hubo una amplia cobertura a los actos de 8M.



Euskal Irrati Telebista eta Bilboko Basurto Ikastetxea lankidetzan ari dira, Hezkuntza Sailak bultzatutako Magnet-Erakarri ekimenaren baitan. EITBk eta Basurtuko ikastetxe publikoak elkarrekin egiten dituzten jardueren helburua ikastetxea dinamizatzea, biziberritzea eta prestigiatzea da, era horretan eskola bere ingurunerako erreferentzia bihurtzeko.

Euskal Irrati Telebista y Basurto Ikastetxea colaboran dentro de la iniciativa Magnet-Erakarri impulsada por el Departamento de Educación. Las actividades que realizan conjuntamente EITB y la escuela pública de Basurto persiguen dinamizar, revitalizar y prestigiar el centro escolar y convertirlo en una referencia para su entorno.



Telefonicak Euskal Irrati Telebistaren (EITB) seinalea helarazi dio Amerikari, Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakundeen Federazioak, FORTAk, deitutako lehiaketa irabazi ondoren. Lehiaketa horretan Galiziako Irrati eta Telebista Korporazioaren (CRTVG) seinalearen transmisioa ere sartzen da. Kontratuaren arabera, Canal Vasco ETBren nazioarteko kanalak (orain EITB Basque) Ameriketara egingo du emankizuna, baita Radio Euskadik eta Euskadi Irratiak ere.

Telefónica transmite a América la señal del grupo Euskal Irrati Telebista (EITB) tras haber ganado el concurso convocado por la Federación de Organismos de Radio y Televisión Autonómicos -FORTA-, en el que se incluye también la transmisión de la señal de la Corporación Radio y Televisión de Galicia (CRTVG). El contrato contempla la retransmisión al continente americano de Canal Vasco (ahora EITB Basque), marca del canal internacional de ETB, y de las emisoras Radio Euskadi y Euskadi Irratia.




Eusko Jaurlaritzak EITBren zerbitzuak Nafarroan hedatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko lankidetza-hitzarmena luzatzeko baimena eman zuen. Akordioaren helburua da bi gobernuek 2016ko uztailean sinatutako eta azken lau urteetan indarrean egon den hitzarmena beste urtebetez luzatzea. Aldi berean, 2024ra arte isilbidez luzatu ahal izatea aurreikusi zuten. Luzapenak ez du aldaketarik ekarri orain arte indarrean egon den hitzarmenaren aldean, eta EITBren telebista eta irrati kanalen emisioekin Nafarroan jarraitzea bermatzen du.

El Gobierno Vasco autorizó la prórroga del convenio de colaboración entre la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Comunidad Foral de Navarra para la difusión de los servicios de EITB en Navarra firmado por los dos ejecutivos en julio de 2016 y vigente durante los últimos cuatro años. El objetivo de este acuerdo es prorrogar un año más el convenio. El acuerdo contempla, asimismo, la prórroga tácita del convenio hasta el año 2024. Esta prórroga no conlleva ninguna modificación con respecto al convenio que ha estado vigente hasta ahora y garantiza la continuidad de la difusión de los canales de televisión y emisoras de radio de EITB en Navarra.



CIC bioGUNE euskal zentroa buru duen ikerketa batek nerbio-sistema oso oldarkorreko minbizia tratatzeko bideak ireki ditu, haurrei zein helduei eragiten dien minbizia tratatzeko bideak, hain zuzen ere. Beste erakunde batzuen artean, EITB Maratoia ekimen solidarioak finantzatutako proiektuetako bat da. EITBren egitasmo horrek medikuntza ikerketara bideratutako dirua biltzen du urtero, eta Osasun Sailaren BIOEF Osakidetzan ikerketa eta berrikuntza sustatzeko eta kudeatzeko fundazioaren bidez bideratzen du.

Una investigación liderada por el centro vasco CIC bioGUNE ha abierto vías para el tratamiento de un cáncer del sistema nervioso altamente agresivo, que afecta tanto a niños como a adultos. Se trata de uno de los proyectos financiados por, entre otras entidades, la iniciativa solidaria EITB Maratoia, que todos los años recauda dinero destinado a la investigación médica y lo encauza a través de BIOEF, la fundación del Departamento de Salud para promover y gestionar la investigación y la innovación en Osakidetza.



Eusko Legebiltzarrak Andoni Aldekoa aukeratu zuen EITBko zuzendari nagusi urriaren 29an, gehiengo osoz. Izendapenak Eusko Jaurlaritza osatzen duten taldeen (EAJ eta PSE-EE) babesa izan zuen. Lan-ibilbide berri honetan, EITB eraginkorra, kalitatezkoa eta erantzukizun sozialekoa izateko lan egingo duela adierazi zuen Aldekoak. Halaber, aurretik zuzendaritza nagusian izan den Maite Iturberen lana eskertu nahi izan zuen. Egun, Donostian dagoen Miramongo Produkzio Zentroko zuzendaria da Iturbe.

Andoni Aldekoa fue elegido director general de EITB por mayoría absoluta en el Parlamento Vasco el pasado 29 de octubre, con el apoyo de los grupos que integran el Gobierno Vasco (PNV y PSE-EE). Aldekoa, en su nueva andadura, aboga por una EITB eficiente, de calidad y con responsabilidad social, y ha querido agradecer el trabajo desempeñado por su antecesora Maite Iturbe, que actualmente ocupa la dirección del Centro de Producción de Miramon en San Sebastián.




Azaroaren 1ean, Komunikazio Taldearen egitura sozietarioaren aldaketa gauzatu zen. Egitura berria EITB herri-erakundeak eta EITB Media SAUk osatzen dute. EITB Media SAUk irratiak (Eusko Irratia SAU eta Radio Vitoria SAU ), telebista (Euskal Telebista SAU) eta internet (EITBnet SAU) bilduko ditu. Egitura berriak EITB herri-erakundeari eutsiko dio, eta gainerako sozietate anonimo unipertsonalak sozietate bakarrean bat eginda geratu dira. Operazio hori EI, RV eta Eitbnet ETBren barruan txertatuz egin da, eta ETBk EITB Media SAU izena hartu du.

El 1 de noviembre se materializó la modificación de la estructura societaria del Grupo de Comunicación que está formada por el ente público EITB y una sociedad anónima pública, EITB Media SAU EITB Media SAU agrupa las radios (Eusko Irratia SAU y Radio Vitoria SAU ), televisión (Euskal Telebista SAU) e internet (EITBnet SAU). En esta nueva estructura se mantiene el Ente Público y se han fusionado todas las sociedades anónimas en una única sociedad. Esa operación se ha materializado integrando Eusko Irratia, Radio Vitoria y EITBnet en ETB, que ha adoptado la denominación de EITB Media SAU



EITBk, erakunde gisa, ariguneak sortuz hartu zuen parte azaroaren 20tik abenduaren 4ra izan zen bigarren Euskaraldian. Ariguneon helburua EITBren barruan hizkuntza-ohiturak aldatzeko urratsak ematea eta entitateko kideen parte-hartzea sustatu eta babestea da. Halaber, EITB Taldeko hedabideek jarraipen zabala egin zioten Euskaraldia egitasmoari: ETBk, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria eta Gaztea irratiek eta eitb.eus-ek saioak, erreportajeak, elkarrizketak eta albiste nabarmenenen kronikak eskaini zituzten, beste eduki askoren artean.

EITB, como entidad, participó en la segunda edición de Euskaraldia del 20 de noviembre al 4 de diciembre creando “ariguneak”. El objetivo de los “ariguneak” ha sido dar pasos a favor del cambio de hábitos lingüísticos dentro de EITB, fomentando también la participación entre sus miembros. Los medios del Grupo EITB, por otra parte, realizaron un amplio seguimiento de la segunda edición de la iniciativa Euskaraldia. Los programas de ETB, las radios del grupo (Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea) y el portal eitb.eus ofrecieron reportajes, entrevistas y crónicas de las noticias más destacadas, entre otros muchos contenidos.






Azaroaren 25ean, EITBko hedabideek Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunarekin bat egin zuten. ETBn, Euskadi Irratian, Radio Euskadin, Radio Vitorian, Gaztean eta eitb.eus-en jarraipen zabala egin zitzaien eguneko ekitaldi nagusiei eta deitutako mobilizazioei. Gainera, erreportaje, elkarrizketa eta kronika bereziak eskaini ziren.

El 25 de noviembre, los medios de EITB conmemoraron el Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres. ETB, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea y eitb.eus realizaron un amplio seguimiento de los principales actos del día y de las movilizaciones convocadas. Además, se ofrecieron reportajes, entrevistas y crónicas especiales.



Euskal Irrati Telebistak bere albiste-kanalak estreinatu ditu Telegramen: EITB ALBISTEAK eta EITB NOTICIAS. Horrela, bada, Euskal Herrian eta munduan gertatu den guztiaren azken ordukoaren berri izateko aukera egongo da mugikorrean, tabletean edo ordenagailuan. Une oro informatuta egoteko, izena eman daiteke kanal horietako batean (edo bietan), alertak jasotzeko.

Euskal Irrati Telebista ha estrenado sus canales de noticias en Telegram: EITB NOTICIAS y EITB ALBISTEAK. De este modo, se pueden recibir directamente en el móvil, tablet o PC la última hora de lo que ocurre en Euskal Herria y en el mundo. Para recibir alertas de uno o de ambos canales, solo es necesario unirse al canal.



Arrakasta handiz *Ni naiz Lete* dokumentala aurrestreinatu zuen EITBk Bilboko BBK Salan artista handiaren heriotzaren 10. urtemugan. Iban Gonzalezek zuzenduta, Baleukok EITBrentzat ekoiztu du *Ni Naiz Lete* lana. Bernardo Atxaga, Antton Valverde, Arantxa Lete eta Lourdes Otaegiren laguntzarekin, Xabierren udaberria, uda, udazkena eta negua errepasatu dituzte, ikusleari sortzailearen mundu artistikoa zein intimoagoa ezagutzeko aukera emanez.

EITB preestrenó con éxito el documental *Ni naiz Lete* en la Sala BBK de Bilbao en el décimo aniversario de la muerte del artista. Se trata de un trabajo dirigido por Iban González y producido por Baleuko para EITB. Con la ayuda de Bernardo Atxaga, Antton Valverde, Arantxa Lete y Lourdes Otaegi, repasa la primavera, el verano, el otoño y el invierno de Xabier, con el fin de acercarse al mundo artístico e íntimo del artista. Pero por encima de todo, el documental pretende homenajear a Lete.



Donostia Zinemaldiaren Euskal Zinemaren galan omenaldi txiki bat egin zitzaion Felix Linares eta “La Noche de…” programari, saioaren 25. urteurrena dela eta. Felix Linaresi aitortza egin zion Zinemaldiak, irrati eta telebista aurkezleak ez baitu urte bakar batean ere hutsik egin zinemarekin Donostian duen hitzorduan. Halaber, “LND” saioak ez du programazioan inoiz kale egin, 1995eko irailaren 19an estreinatu zen, eta ordutik hona asteartero izan da ikusgai, ikus-entzuleei leial izanik.

En la Gala del Cine Vasco del Zinemaldia se rindió un pequeño homenaje a Félix Linares y al programa “La Noche de…”, con motivo del 25 aniversario del programa. El Festival de San Sebastián quiso reconocer la trayectoria del periodista de televisión y radio Félix Linares, que además no falta ningún año a su cita con el cine en San Sebastián. El programa de televisión “LND”, asimismo, no ha dejado nunca de emitirse desde que se estrenó el 19 de septiembre de 1995, fiel a su audiencia, todos los martes.

## Informazioa eta entretenimendua, EITBren funtsezko zerbitzua covid-19aren aurka

Koronabirusak gure bizitza aldatu du eta gure hedabideetan ere eragina handia izan da. Gure medioek lan egiteko moduak aldatu ez ezik, zerbitzu publiko izaerak azpimarra berezia izan du. Pandemiaren aurrean eskaintza egokitu behar izan du EITBk eta, inoiz baino gehiago zerbitzu publiko izaeratik abiatuta, informazioa eta entretenimendua bermatzeko ahalegin handia egin dute taldeko hedabideek. Bostehun profesional inguru etxetik aritu ziren lanean itxialdi garaian, eta EITBren barruan jarraipen-talde bat sortu zen, egoera berezira egokitzeko neurriak aztertu eta erabakitzeko lanaren ikuspuntutik.

Era berean, EITBk hainbat kanpaina korporatibo abiarazi zituen: koronabirusari buruzko prebentzio aholkuekin eta gomendioekin landutako iragarki sorta, maskarillaren erabilera sustatzeko kanpaina, adineko pertsonei arreta emateko bideoak, itxaropen eta konfiantza-mezu bat zabaltzen duen kanpaina, eta kultura eta tokiko dendei babesa eskaini nahi diena, besteak beste.

Telebistako programa gehienek, berebat, formatua egokitu behar izan zuten alarma-egoeraren murrizketen ondorioz, eta aurkezle batzuek beren etxeak plato bihurtu zituzten. EITBk koronabirusaren inguruko EITB Focusa argitaratu zuen gizartearen iritzia jakiteko eta hainbat ekimen jarri zituen martxan, besteak beste, “Bitartean, Etxetik Ikasten” hezkuntza saioa, *Koronabuloak* albiste faltsuak antzemateko zerbitzua eta *Kultura gara* atala, albistegien barruan sortzaileei zuzendutako tartea. Berebat, “Adinberri” programak adineko pertsonen osasun fisiko eta emozionala lantzeko balio izan du.

Bestalde, EITBko irratiak erreferente izan dira informazioan, eta baita konfinatuta dauden pertsonei laguntza eskaintzen ere. Bere etxetik edo estudioetatik, Dani Alvarez, Maite Artola, Maritxu Diez eta EITBko irratietako kazetari asko gerturatu ziren egunero entzuleengana gaurkotasunarekin eta informazio erabilgarrienarekin. Irratiak, inoiz baino gehiago, koronabirusaren krisialdi honetako bizipenak, sentsazioak eta emozioak partekatzeko foro bihurtu ziren.

Covid-19aren inguruko albiste eta azken orduarekin batera, eitb.eus-ek itxialdirako denetariko proposamenak ekarri zituen. Koronabirusaren inguruko albiste eta azken orduarekin batera, musika, kirola, zientzia, zinema eta beste gai askotariko proposamen bereziak ekarri zituen webguneak.




## Información y entretenimiento, servicio esencial de EITB contra la covid-19

El coronavirus ha cambiado nuestra vida y ha influido también en nuestros medios de comunicación. No sólo ha modificado la forma de trabajar de nuestros canales, sino que su carácter de servicio público ha cobrado especial importancia. EITB ha tenido que adaptar su oferta ante la pandemia y, más que nunca desde su carácter de servicio público, los medios de comunicación del Grupo han hecho un gran esfuerzo para garantizar la información y el entretenimiento. Cerca de medio millar de profesionales trabajaron desde casa durante el confinamiento y dentro de EITB se creó un grupo de seguimiento para analizar y decidir las diferentes medidas para adecuarse a esta situación excepcional desde el punto de vista laboral.

EITB lanzó, igualmente, varias campañas corporativas con diversas temáticas que pasan por señalar las medidas de prevención, reforzar el uso de la mascarilla, la atención preferente a las personas más mayores, dar mensajes de esperanza y confianza, y apoyar a la cultura y al comercio locales, entre otros aspectos.

Por otro lado, la mayoría de los programas de EITB también tuvieron que adaptar su formato debido a las restricciones del estado de alarma y algunos presentadores y presentadoras convirtieron sus casas en platós. EITB publicó, igualmente, un EITB Focus sobre el coronavirus para sondear la opinión y el sentir de la sociedad vasca y, entre otras inciativas, puso en marcha el programa educativo “Bitartean, Etxetik ikasten”, el servicio de detección de noticias falsas *Coronabulos* y la sección *Kultura gara* dentro de los informativos, dirigida a los creadores. Asimismo, estrenó con muy buena acogida el programa “Adinberri” con el objetivo de ejercitar la salud física y emocional de las personas mayores.

En lo que se refiere a las radios de EITB, referente en la información y también en la atención durante el confinamiento, han cumplido una importante labor de servicio público y cercanía. Desde sus casas o desde los estudios, Dani Álvarez, Maite Artola, Maritxu Díez y muchos periodistas de las radios de EITB se acercaron a diario a sus oyentes con la información más útil. Las radios, más que nunca, se convirtieron en un foro para compartir las vivencias, sensaciones y emociones de esta crisis sanitaria.

Junto a las noticias y última hora sobre la covid-19, eitb.eus ofreció propuestas especiales sobre música, deporte, ciencia, cine y otros temas.

## EITB Maratoia 2020 covid-19aren kontra: Denok gara kausa

*“Aurten guztiok gara EITBren maratoi solidarioaren kausa. EITB Maratoia koronabirusari eskainita egongo da”*, adierazi zuen Maite Iturbe EITBko zuzendari nagusiak joan zen uztailean, Maratoiaren 2020ko ediziorako aukeratutako gaia aurkeztean.

Urte berezia izanik ere, jendarteak eskuzabal eta bero erantzun zion deialdiari eta EITB Maratoiaren diru-emaitza bikaina izan zen: 800.000 eurotik gora bildu ziren, BIOEF Osasun Sailaren fundazioaren bidez covid-19aren ikerkuntzarara bideratzeko.

Halaber, bertsoaz baliatu zen EITB Maratoia euskal gizartearen parte hartzea eskatzeko. Inoiz ez bezalako bertso kate bat sortzea zen helburua, guztiok batzen gaituen bertso baten bidez, euskal gizarteak sentitzen zuena adierazteko. Hartara, Maddalen Arzallusek, Sebastian Lizasok, Oihana Iguaranek, Xabier Euzkitzek, Onintza Enbeitak eta Aitor Mendiluzek sortu zuten hasierako bertsoa Bob Marleyren “No woman, no cry” abestiaren doinuarekin. Ekimenak oihartzun handia izan zuen eta jende ezagun eta ezezagunak, hainbat erakundek, ikastetxek eta orotariko norbanako eta taldek jarri zuen bere alea. Guztira, 1700 bertso bildu zituen bertso kateak: 600 bideo baino gehiago eta 1000 bertsotik gora argitaratu ziren webgunean. Ekimena jende aurrean egindako hainbat bertso saiok ere indartu zuten. Abenduaren 1ean Bilboko Campos antzokian bertso jaialdia antolatu zen, Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Alaia Martin eta Sustrai Colinarekin. Halaber, abenduaren 13an, Donostian, Bilbon eta Gasteizen, ordu berean hiru bertso saio eskaini ziren. Beste behin, jasotako erantzunarengatik euskal gizarte osoari parte hartzea aitortu nahi dio EITBk. Eskerrik asko!




## EITB Maratoia 2020 contra la covid-19: Todos y todas somos la causa

*“Este año la causa del maratón solidario de EITB somos todos y todas. El maratón solidario estará dedicado al coronavirus”*, anunció Maite Iturbe en julio, al presentar la causa de la edición de 2020 de EITB Maratoia.

A pesar de ser un año especial, la sociedad respondió con generosidad y calidez a la convocatoria, y se recaudaron más de 800 000 euros, una cifra excepcional que se destinará a la investigación de la covid a través de BIOEF, la fundación del Departamento de Salud para promover y gestionar la investigación y la innovación en Osakidetza.

EITB Maratoia pidió la participación de la sociedad a través de un bertso, con la idea de crear una gran cadena de bertsos con el que expresar el sentir de toda la sociedad vasca y que nos uniese a todos y todas. El bertso de inicio fue creado por los bertsolaris Maddalen Arzallus, Sebastian Lizaso, Oihana Iguaran, Xabier Euzkitze, Onintza Enbeita y Aitor Mendiluze utilizando la melodía del tema “No woman, no cry” de Bob Marley. La iniciativa tuvo mucho éxito, y contó con el apoyo y la implicación de gente conocida y anónima que participó a título individual y en grupo, además de instituciones, centros escolares y todo tipo de entidades. En la cadena de bertsos *Bertso katea* se lograron reunir 1700 bertsos, con más de 600 vídeos y más de 1000 bertsos online. También se celebraron varios festivales de bertsolaris con público al calor de la iniciativa. El 1 de diciembre tuvo lugar en el teatro Campos de Bilbao la actuación de Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Alaia Martin y Sustrai Colina, y el 13 de diciembre tres festivales simultáneos en San Sebastián, Bilbao y Vitoria-Gasteiz. Una vez más, EITB quieren agradecer la participación de la sociedad vasca. Eskerrik asko!


ARIGUNEA


Go! azen
AHOZ AHO


25 años




VXM
vascos por el mundo

Euskal ikus-entzuleek EITB aukeratu dute, batez ere, inguru hurbilean eta mundu zabalean jazotzen den guztiaren berri izateko, pandemiaren urte korapilotsuan. Euskal Telebistako albistegiek, batez beste, % 25eko audientzia izan dute 2020an, 2019an baino ia sei puntu gehiago.

Informazioan eta aktualitatean erreferente izatea eta zortzi urtez jarraian lortutako lidergoari sendo eustea izan dira helburuak amaiatu den urte honetan ere. Hala, informaziorik onena eskaintzea, hurbila zein globala, eta euskal ikus-entzuleen konfiantzari hutsik ez egiteko lan egitea dira hastapen nagusiak.

Horretarako, arreta gune guztietan egon dira albistegiak. Hurbil eta zehatz pandemiaren egunerokoa adi eskaintzearekin batera, aktualitatearen gai nagusiei jarraipen betea eskaini zaie, uztailean izan ziren EAEKo hauteskundeei eta azaroan AEBn egindako bozei, esate baterako.

Aurkezle talde zabalak ematen du egunero albisteen berri: "Egun On Euskadi" 09:00etako albistegi goiztiarra Iban Garatek aurkezten du; eguerdian, Xabier Usabiagak dakartza albisteak 14:00etako "Gaur Egun"en, eta Africa Baetak 15:00etako "Teleberri" albistegian. Gauean, astelehenetik ostiralera, euskaraz, Yerai Diaz Ikaran dugu 20:00etan "Gaur Egun"en, eta Juan Carlos Etxeberria 21:00etan "Teleberri"n. Azkenik, asteburuan, eguerdiko "Teleberri" Estibaliz Ruiz de Azuak gidatzen du eta gauekoa, berriz, Xabier Garcia Ramsdenek. Jonan Apaolaza dugu, orobat, asteburu guztian "Gaur Egun" albistegiaren aurpegi.

Kirolen atalean, berriz, "Gaur Egun Kirolak" Jon Balentziagak eta Ana Ramosek aurkeztu ohi dute eta "Teleberri Kirolak" saioa, berriz, Jose Ituartek eta Sara Gandarak.

Halaber, "Iparraldearen Orena"k ere hortxe eusten dio astelehenetik ostiralera 15:00etan, eta igande goizetan 08:30ean, ETB1en. Iparraldeko gaurkotasunaz gain, erreportajeak ere lantzen dituzte Franck Dolosor, Nerea Olaso eta Aitor Zabaleta kazetariek.

"Eguraldia" saioak, berebat, indartuta ekin zion denboraldi berriari, zerbitzua oinarri duen saioa eskaini nahian lanean jarraitzeko asmo sendoarekin. Hala, Andoni Aizpuruk euskarazko "Eguraldia" saioaren gidaritzan jarraitzen du, astelehenetik ostiralera; Ana Urrutiak gaztelaniazko iragarpena eskaintzen du astelehenetik ostiralera; eta asteburuan Igor Siguero eta June Ansoleaga izan dira saioren aurkezleak. Libe Gaztelurrutia eta Gorka Ormaetxea meteorologoek osatzen dute lantaldea, guztiak ere Zuriñe Zulaikaren gidaritzapean.










La audiencia vasca ha optado mayoritariamente por EITB para informarse sobre la última hora de lo que ocurre en su entorno más cercano, y también fuera de nuestras fronteras, en el año marcado por la pandemia. Los informativos de Euskal Telebista alcanzan en 2020 una media del 25% de share, casi seis puntos por encima del índice de 2019.

Los objetivos siguen siendo los mismos: continuar siendo el referente en información y actualidad, y mantener el liderazgo logrado durante ocho años consecutivos. Así, ofrecer la mejor información cercana y global, y seguir trabajando para no defraudar la confianza de la audiencia vasca continuan siendo las claves.

Los informativos han estado en todos los puntos de atención. Junto con el repaso diario de los datos de la pandemia, se ha hecho un seguimiento exhaustivo de los principales temas de la actualidad, como las elecciones vascas de julio y las votaciones de noviembre en Estados Unidos.

Un amplio equipo de equipo de presentadores y presentadoras son los encargados de relatar las noticias en televisión: Iban Garate conduce el informativo "Egun On Euskadi" a las 09:00 horas; a mediodía, Xabier Usabiaga está al frente del "Gaur Egun" a las 14:00 horas, y África Baeta en "Teleberri" a las 15:00 horas. Por la noche, de lunes a viernes, Yerai Díaz Ikaran presenta el informativo en euskera a las 20:00 horas y Juan Carlos Etxeberria acerca la actualidad en el "Teleberri" de las 21:00 horas. Por último, el fin de semana, Estibaliz Ruiz de Azua presenta "Teleberri" a mediodía y Xabier García Ramsden a la noche, mientras que en ETB1 Jonan Apaolaza continúa al frente de "Gaur Egun".

En cuanto a la información deportiva, Jon Balentziaga y Ana Ramos están al frente de "Gaur Egun Kirolak", mientras que "Teleberri Kirolak" corre a cargo de Jose Ituarte y Sara Gandara.

"Iparraldearen Orena", por su parte, se emite a las 15:00 horas de lunes a viernes, y a las 08:30 horas los domingos, en ETB1. Además de la actualidad de Iparralde, el programa ofrece reportajes de la mano de los periodistas Franck Dolosor, Nerea Olaso y Aitor Zabaleta.

Por otra parte, el espacio "Eguraldia" ha encarado la temporada reforzado con la firme intención de seguir trabajando para ofrecer un espacio de servicio. Así, Andoni Aizpuru continua al frente de "Eguraldia" en euskera de lunes a viernes, mientras que Ana Urrutia da cuenta de la previsión en castellano, también de lunes a viernes. El fin de semana, Igor Siguero y June Ansoleaga han sido los encargados de presentar "Eguraldia". Los meteorólogos Libe Gaztelurrutia y Gorka Ormaetxea completan el equipo, liderados todos ellos por la también meteoróloga Zuriñe Zulaika.



Kirol emanaldientzat urte gorabeheratsua izan da 2020, jakina, baina ahal izan denean, zuzeneko kirolaren leihoa zabalik izan du EITBk. Horrez gainera, kiroletako lan-taldeak gogotik lan egin du erreportaje eta emanaldi bereziak eskaintzeko.

Azpimarragarria, esaterako, ekainean "ETB Kantxa" frontoira itzuli zela oroitzea hiru hilabete eta erdiz geldirik egon ondoren. Astero, hiru pilota emankizun izan dira orokorrean eta "ETB Kantxa" saioko esatari taldean Xabier Euzkitze, Joseba Urkiola, Elena Azpeitia, Ane Muruamendiaraz, Abel Barriola eta Mikel Idoate aritu dira, txandaka.

Bide beretik, goi-mailako txirrindularitzaz udan eta udazkenean jokatu ziren nazioarteko proba garrantzitsuenak zuzenean eskaini ziren: Burgosko Itzulia, Frantziako Tourra eta Italiako Giroa, besteak beste. Fermin Aramendi izan zen emankizun hauetako gidari nagusia, eta harekin batera aritu ziren, tartekatuz, Xabier Usabiaga, Pedro Mari Goikoetxea, Alfontso Arroio eta Alessandro Ruta.

Ohi baino beranduago hasi zen arraun denboraldia ETB1en eta eitb.eus-en. Mikel Olazabal, Ibon Gaztañazpi eta Sara Gandara ohiko esatariek Euskotren eta Eusko Label ligetako estropadak, Donostiako Bandera eta Euskadiko eta Espainiako txapelketak ekarri zituzten.

Halaber, emakumezkoen pilota ezagutzera emateko asmoz jaio zen "Plazandreak" saioa uztailean. Modu berritzailean ekoitzitako lehiaketa tartea, Iñigo Aiestaran eta Elena Azpeitia kazetariek eta Gentzane Aldai pilotariak gidatu zuten.

Zuzeneko kirol lehiaketa eta emanaldiez gain, Aritz Aduriz jokalar zurigorri ohiari buruzko *Gogoaren indarra* erreportaje berezia; Maialen Chourraut piraguistaren inguruan landutako *Beldurretan arraunean* erreportajea, Behobia-Donostiaren mendeurrenari buruzko dokumentala, eta Athletic eta Realaren Kopako ibilbideari jarraipena utzi ditu, beste eduki askoren artean, 2020. urteak.






2020 ha sido un año agitado también para los eventos deportivos, pero en cuanto las circunstancias lo han hecho posible, EITB ha abierto su ventana a las competiciones en directo. Asimismo, el equipo de deportes ha hecho un esfuerzo especial para ofrecer reportajes y retransmisiones especiales.

A subrayar, por ejemplo, el regreso en junio de "ETB Kantxa" a la pantalla tras la inactividad de los pelotaris que se ha prolongó durante tres meses y medio. Con tres citas semanales con la pelota a mano, el equipo de comentaristas del programa "ETB Kantxa" está compuesto por Xabier Euzkitze, Joseba Urkiola, Elena Azpeitia, Ane Muruamendiaraz, Abel Barriola y Mikel Idoate.

Igualmente, EITB ofreció en verano y otoño la oportunidad de disfrutar de nuevo del ciclismo de más alto nivel. ETB1 y eitb.eus emitieron la Vuelta a Burgos, el Tour de Francia y el Giro de Italia, entre otros. Fermin Aramendi estuvo al frente de estas retransmisiones deportivas, y le acompañaron, por turnos, Xabier Usabiaga, Pedro Mari Goikoetxea, Alfontso Arroio y Alessandro Ruta.

La temporada de remo también arrancó más tarde de lo habitual. Se emitieron las ligas Euskotren y Eusko Label al completo, la Bandera de Donostia, y los campeonatos de Euskadi y España. Un total de 24 retransmisiones que fueron comentadas por Mikel Olazabal, Ibon Gaztañazpi y Sara Gandara.

Por otra parte, se estrenó "Plazandreak", con el objetivo de dar a conocer la pelota femenina. Un proyecto innovador conducido por los periodistas Iñigo Aiestaran y Elena Azpeitia y la pelotari Gentzane Aldai.

Además de las competiciones y retransmisiones deportivas en directo, 2020 ha dejado el reportaje especial *Gogoaren indarra*, sobre el ex jugador rojiblanco Aritz Aduriz; el reportaje *Beldurretan arraunean*, en torno a la piragüista Maialen Chourraut; el documental sobre el centenario de la Behobia-San Sebastián, y el seguimiento al Athletic y la Real Sociedad en la Copa del Rey, entre otros muchos contenidos.

Euskal zinemarekin duen konpromisoari jarraiki, EITBk, nahiz eta pandemia egoeran egon, 8 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin du 2020an. Orotara, 16 film luzetan, 16 film laburretan, 5 dokumentaletan eta telebistarako 5 fikziotan egin du inbertsio hori. Ekoiztutako 16 film luzeetatik, 9 fikziozkoak dira eta 7 dokumentalak. Erdia emakumeek zuzendu dute.

Aipatu behar da Donostia Zinemaldiaren azken edizioan, EITBren parte-hartzea izan duten 12 film aurkeztu zirela. Nabarmentzekoa, tartean, *Akelarre* Sail Ofizialean aurkeztu zutela eta *Hil kanpaiak* Zuzendari Berriak sailean. Berebat, *Ane* lanak euskal film onenaren Irizar saria eta Euskal Gidoi Onenaren saria lortu zituen.

Bestalde, *Akelarre* pelikulak 9 izendapen lortu ditu Goya sarietarako eta 6 Forqué sarietarako; eta *Ane* filmak, berriz, 5 Goya sarietarako eta 3 Forqué sarietarako. Ildo horretatik, esan behar da EITBk parte hartzen duela Oscar sarietan Espainia ordezkatzeko aurrez hautatutako 3 pelikuletan: *La trinchera infinita*, *El hoyo* eta *O que arde*. Azkenik, Jose Maria Goenagak, Jon Garañok eta Aitor Arregik zuzendutako filmak lortu du Oscarretarako txartela.

Era berean, ohikoa den bezala, balio berrien aldeko apustuari eutsi dio EITBk, film laburrak kontratatuz. 2020an, gainera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin lankidetzan aritu da EITB *Itxitik* proiektua abian jartzeko. Proiektu horren bidez, 7 errealizadorek martxoan agindutako itxialdiaren ikuspegia eskainiko dute.













Fiel a su compromiso con el cine vasco, y a pesar de la pandemia, EITB ha realizado en 2020 una inversión de algo más de 8 millones de euros en largometrajes (16), cortometrajes (16), documentales (5) y ficción para televisión (5). De los 16 largometrajes, 9 han sido de ficción y 7 documentales. La mitad de esos trabajos han sido dirigidos por mujeres.

Hay que señalar que en la última edición del Festival de San Sebastián concurrieron 12 películas que han contado con participación de EITB. Entre ellas destaca la presencia en la Sección Oficial de *Akelarre* y en la sección New Directors de *Hil kanpaiak*. Además *Ane* logró el premio Irizar a la mejor película vasca y el premio al mejor guión vasco.

Por otra parte, *Akelarre* ha obtenido 9 nominaciones a los premios Goya y 6 a los premios Forqué, mientras que *Ane* tiene 5 nominaciones a los Goya y 3 a los Forqué. De igual forma, hay que reseñar que EITB participa en los 3 títulos preseleccionados para representar a España en los Óscar: *La trinchera infinita*, *El hoyo* y *O que arde*. Finamente ha sido seleccionada la cinta dirigida por Jose Maria Goenaga, Jon Garaño y Aitor Arregi.

Asimismo, como es habitual, merece subrayarse la apuesta por nuevos valores a través de la contratación de cortometrajes. En 2020, además, EITB ha colaborado con el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco para la puesta en marcha del proyecto *Itxitik*, a través del cual 7 realizadores darán su visión del confinamiento decretado en marzo.



Euskarazko fikzioaren aldeko apustua egiteko asmoa berretsi du EITBk, eta 2020an 3,5 milioi eurotik gora inbertitu ditu fikziozko telesail eta telesail laburretan. Ildo horretatik, euskarazko telesailek protagonismo berezia izan zuten urteko azken lauhilekoan. Erantzun eta harrera ona izan dute, gainera, ekoizpen hauek. Hasteko, "Alardea" lau ataletako telesaila etorri zen, alardearen auzian libreki oinarrituta dagoen lana. David P. Sañudok zuzendutako ekoizpenean, Itziar Ituño aktoreaz gain, Carmen Climent, Klara Badiola, Iñigo Aranburu, Kandido Uranga eta German Alzarazu aktoreek hartu zuten parte. Aurrestreinaldia Donostiako Zinemaldian egin zen.

Ondoren, "Hondar Ahoak" suspense telesail laburra estreinatu zen. Thriller eta zinema beltzeko elementuak nahasten dituen intrigazko istorio bat kontatzen du, eta Koldo Almandoz gidoilari eta zuzendariaren lan originala da. Protagonista nagusiak Nagore Aranburu eta Eneko Sagardoy dira. Antzezle-zerrenda nagusia Iñaki Beraetxek, Sara Cozarrek, Ainhoa Artetxek eta Iraia Eliasek osatzen dute. Gainera, Joxean Bengoetxea, Mikel Tello, Asier Hernandez eta Pako Revueltas aktoreek ere parte hartu dute telesailean.

Jarraian, abenduan, "Altsasu" eskaini zuen EITBk. Altsasuko zortzi gazteen historian oinarritutako kontakizun askeak, batez ere, auzipetuen sentimenduetan egiten du azpimarra. Asier Urbietak zuzendutako lanean aktore gazteak eta beteranoak uztartzen dira. Batetik, Jon Olivares, Erik Probanza, Nikola Zalduegi, Aia Kruse, Asier Oruesagasti, Julen Jimenez, Xabier Elizalde eta Ander Azurmendi protagonista gazteak daude, eta zortzi auzipetuen rola egiten dute. Bestetik, Cristian Merchan eta Jorge Monje (guardia zibilak) eta Yasima Drissi (neskalaguna) daude. Aktore taldea osatzeko, berriz, aktore ezagun sorta: Jose Ramon Soroiz, Mireia Gabilondo, Miren Gojenola, Jose Ramon Argoitia eta Itziar Atienza.

Bestalde, azaroan "Go!azen" telesailaren zazpigarren denboraldia iritsi zen, hiru aktore gazte berrirekin: Aitziber Errazkin, Nerea Elizalde eta Ander Lacalle. Halaber, hiru langile berri heldu ziren Basakabi udalekuetara: Maria Cruickshank ingeles irakasle berria; Markel Aranburu (Asier Burguete aktoreak antzeztutako pertsonaia) Basakabira itzuli zen, oraingo honetan bekadun moduan; eta Aitor, Endika Zamalloa aktoreak jokatu duen langilea, egoitzako mantentze-lanetaz arduratu da. Endika Zamalloa Down sindromedun lehen aktorea da "Go!azen" telesailean.
















Cabe también destacar la apuesta de EITB por la ficción en euskera, con una inversión en 2020 de más de 3,5 millones de euros en series y miniseries de ficción. Las teleseries producidas en euskera tuvieron un protagonismo muy especial en el último cuatrimestre del año, con muy buena acogida por parte de las personas telespectadoras.

En octubre se estrenó "Alardea", la miniserie de cuatro capítulos inspirada libremente en el conflicto del desfile del alarde. La producción está dirigida por David P. Sañudo y, junto a Itziar Ituño, en el plantel de actores participan Carmen Climent, Klara Badiola, Iñigo Aranburu, Kandido Uranga y German Alzarazu. El preestreno tuvo lugar en el Festival de San Sebastián.

Después llegó "Hondar Ahoak", miniserie de suspense con elementos de *thriller* y cine negro de cuatro capítulos. Esta creación original de Koldo Almandoz está protagonizada por Nagore Aranburu y Eneko Sagardoy, y completan el casting principal Iñaki Beraetxe, Sara Cozar, Ainhoa Artetxe e Iraia Elias. En el reparto también participan Joxean Bengoetxea, Mikel Tello, Asier Hernández y Pako Revueltas.

A "Hondar Ahoak" le tomó el testigo en diciembre "Altsasu", inspirada libremente en la historia real de los ocho jóvenes de Alsasua acusados de delito de terrorismo, y que se centra sobre todo en los sentimientos de los encausados. Por una parte, están los jóvenes protagonistas Jon Olivares, Erik Probanza, Nikola Zalduegi, Aia Kruse, Asier Oruesagasti, Julen Jiménez, Xabier Elizalde y Ander Azurmendi, que encarnan a los ocho encausados. Por otro lado, en el papel de los guardias civiles, Cristian Merchan y Jorge Monje, y Yasima Drissi en el de novia de uno de ellos. Completan el reparto nombres tan conocidos como José Ramón Soroiz, Mireia Gabilondo, Miren Gojenola, José Ramón Argoitia e Itziar Atienza.

Por último, en noviembre, fiel a su cita, llegó la séptima temporada de "Go!azen", con la incorporación de tres jóvenes actores: Aitziber Errazkin, Nerea Elizalde y Ander Lacalle. Además, en las colonias Basakabi han contado con tres nuevos trabajadores: la actriz Maria Cruickshank es la nueva profesora de inglés; *Markel Aranburu*, interpretado por el actor Asier Burguete, vuelve a Basakabi, esta vez como becario; y *Aitor*, encarnado por el intérprete Endika Zamalloa, se encarga del mantenimiento de la residencia. Endika Zamalloa ha sido el primer actor con síndrome de Down en participar en la serie "Go!azen".

Azken Durangoko Azoka berezia izan da pandemiaren egoerak horrela bultzatuta. Denda online erraldoia bilakatu zen, baina hein berean, aurrez aurreko zenbait ekitaldi eta aurkezpen izan zituen. Hala ere, EITBk, beste behin, Azokari jarraipen estua egin zion hedabide guztietan eta bertan ere parte hartu zuen.

Durangoko Azokak irauten zuen bitartean, saio bat ekoiztu zuen eitb.eus-ek Azoka Telebista egitasmoarekin elkarlanean. Edizio berezi honen egunerokoa izan zen eta sortzaileak aurrez aurre jarri zituen, egoera honetan zituzten bizipenak ezagutzeko.

Landako Guneko liburu, disko, proiektu eta ikus-entzunezkoen aurkezpenak eta Plateruenan eskainitako musika emanaldiak izan ziren saioaren ardatz nagusia. Covid-19 gaitzak behartuta ezarritako mugak eta salmenta digitalak sortutako antolaketa berriak ere aipagai izan ziren.

Halaber, abenduaren 8an, Durangoko Azokaren programazioaren baitan, "Bidegurutzean" musika saio berria aurkeztu zuen EITBk Landako Gunean, saioaren eta EITBren arduradunen parte hartzeaz. Aurkezpenaren ostean, lehenbiziko atalaren emanaldia eskaini zen. Musika da "Bidegurutzean" saioaren ardatz nagusia, eta Euskal Herriko hainbat musikariren elkargune izatea du helburu nagusi, hemengo musikariei ikusgarritasuna eman eta ikusleei euskal musikaren argazki osatuago bat eskaintze aldera. Formatu berritzailea dakar saioak, bidegurutzea eta grabaketa kabina batekin.

Bestalde, EITBk argitaratutako hiru liburu izan ziren eskuragai Durangoko Azokako denda birtualean: *EITBren estilo liburuaren* hirugarren edizioa, kazetaritzako jardunbideak eta arauak eta informazioaren tratamenduaren irizpideak jasotzen dituena; Asier Larrinaga EITBko Euskara Zerbitzuko buruak idatzitako *Euskara kolokialaren eskuliburua*, kaleko eta lagunarteko euskarari buruzko lehen liburua, eta batik bat sorkuntzaren eta irakaskuntzaren arloetan ari direnentzat baliagarria izateko helburua duena; eta Iñaki Agirregomoskortak idatzitako *Así nació la Televisión del País Vasco* liburua, Alberdania argitaletxeak kaleratuta eta ETBren sorkuntza eta Euskal Telebistaren historia ardatz duena.



La última Feria de Durango, condicionada por la pandemia, se convirtió en una gran tienda online que combinó su carácter virtual con eventos y presentaciones presenciales. EITB, una vez más, hizo un amplio seguimiento de la Azoka en todos sus medios y participó activamente en ella.

Durante la Feria, eitb.eus ofreció un programa en colaboración con Azoka Telebista describiendo el día a día de esta edición especial y entrevistando a los y las creadoras para conocer sus vivencias. El programa se centró en las presentaciones de libros, discos, proyectos, audiovisuales y las actuaciones musicales que tuvieron lugar en Plateruena. También se abordaron las limitaciones impuestas por la covid-19 y la necesidad de organizar la venta digital de forma innovadora.

Asimismo, el 8 de diciembre, dentro de la programación de la Azoka de Durango, EITB presentó en Landako Gunea el nuevo programa musical "Bidegurutzean" con la participación de los responsables del programa y representantes de EITB. Tras la presentación se emitió el primer capítulo. La música es el eje central del programa, y su objetivo principal es servir de punto de encuentro de músicos de Euskal Herria para darles visibilidad y ofrecer al público una fotografía más completa de la música vasca. El programa incluye un formato innovador, con un cruce de caminos y una cabina de grabación.

En la última edición de la Durangoko Azoka, igualmente, se han puesto a disposición del público tres libros de la mano de EITB: la tercera edición del *Libro de estilo de EITB*, que recoge normas de práctica periodística y criterios para el tratamiento de la información; el manual *Euskara kolokialaren eskuliburua* escrito por Asier Larrinaga, jefe del Servicio de Euskera de EITB, que es el primer libro sobre el euskera informal y coloquial y tiene como objetivo principal servir especialmente a quienes trabajan en el ámbito de la creación y la enseñanza; y, por último, *Así nació la Televisión del País Vasco*, escrito por Iñaki Agirregomoskorta y publicado por Alberdania, que se centra en la creación de ETB y en la historia de la televisión vasca.



Irailaren 1etik 5era FesTVal Telebista Jaialdiaren 12. edizioa egin zen Gasteizen eta, beste behin ere, EITBk bertan hartu zuen parte. Estatu mailan egiten den telebista jaialdi garrantzitsuena da FesTVal, eta Euskal Irrati Telebista anfitrioia izan da urte hauetan guztietan.

Europa Jauregian egin ziren aurkezpen eta estreinaldiak, eta ETB2ko udazkeneko programazio berria eta 3 klubeko "3 Ene Kantak" saioaren denboraldi berria aurkeztu zituen EITBk bertan. Horrez gain, ETB2ko "Vamos a Hacer Historia" saioaren aurrestreinaldia ere egin zuen FesTValen baitan.

Jaialdiaren itxiera gala Ion Aramendik gidatu zuen beste behin. EITBko aurpegi ezagun asko batu ziren bertara, tartean sarituak izan ziren Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi, ETB1eko "Herri Txiki, Infernu Handi" saioko aurkezleak; eta Dani Alvarez Radio Euskadiko esataria. Constantino Romero saria jaso zuen azken horrek. EITBk, bestalde, Galder Gaztelu-Urrutia *El hoyo* filmaren zuzendariari eman zion 2020ko EITB Saria.













El FesTVal, Festival de Televisión de Vitoria-Gasteiz, celebró su XII edición del 1 al 5 de septiembre con la presencia, un año más, de EITB como medio anfitrión.

El Palacio de Congresos Europa fue la sede principal del certamen y allí se realizaron las diferentes presentaciones y estrenos. EITB presentó su programación de otoño de ETB2, además de la segunda temporada del programa "3 Ene Kantak" de 3 kluba. Además, en el marco del FesTVal se realizó el preestreno del programa de ETB2 "Vamos a Hacer Historia".

La gala de clausura, que fue presentada de nuevo por Ion Aramendi, contó con la presencia de rostros conocidos de EITB, entre ellos Zuhaitz Gurrutxaga y Mikel Pagadi, presentadores del programa de ETB1 "Herri Txiki, Infernu Handi", que fueron galardonados con un premio FesTVal; y el periodista de Radio Euskadi Dani Álvarez, a quien entregaron el premio Constantino Romero. EITB, por su parte, hizo entrega del premio EITB Saria 2020 a Galder Gaztelu-Urrutia, director de *El hoyo*.

3 klubak ere koronabirusak eragindako egoerara moldatu behar izan du 2020an. Itxialdi garaian hainbat ekimen jarri zituzten martxan, etxeko txikienei zuzenduta. Hala, “Bitartean Etxetik Ikasten” hezkuntza saio bereziaz gain, *Etxean geratuko naiz* argazki eta bideo lehiaketa egin zuten, ikus-entzule gazteenak egoera berezia nola ari ziren bizitzen jakiteko. 550 argazki baino gehiago jaso zituzten eta, erantzuna eskertzeko, “Eskerrik asko” abestia eta logoaren mosaiko hunkigarria sortu zuten argazkiekin. ETB3ko programazioan, gainera, higiene eta segurtasun neurrien inguruko atal bereziak eskaini ziren.

Urtean zehar, 3 klubak hainbat marrazki bizidun eta saio berri estreinatu ditu, tartean “Erronkan” programa, ikastetxeen arteko norgehiagoka dibertigarriekin; “Lur eta Amets, hau bai abentura”, marrazki bizidunak eta familia lehiaketa elkartuz; eta “Txac Planet” saioa, etxeko txikienak programazio informatikoan trebatzeko. Nola ez, “3 Ene Kantak” saioaz gozatzeko aukera izan da urte osoan zehar, eta animazio pelikulen estreinaldiak ere hartu ditu ETB3k.

3 klubak Youtube kanala indartu du, eta euskarri digitalen aldeko apustuari eutsi dio. Hala, telebistako marrazki bizidun guztien atalak ikusgai daude 3 kluba aplikazioan zein telebista konektatuetan, eta hainbat marrazki bizidun plataforma digitaletan estreinatzen ari dira telebistan eman aurretik.

Klubeko kideak zoriontzeko tarteak, bestalde, arrakasta handia izan du eta, nola ez, abantailak, zozketak eta opariak izan dituzte.




Este 2020, 3 kluba también se ha tenido que adecuar a la situación generada por el coronavirus. Así, durante el confinamiento se pusieron en marcha diferentes iniciativas y actividades dirigidas a los más pequeños y pequeñas. Junto con el programa educativo “Bitartean Etxetik Ikasten”, se organizó el concurso de vídeos y fotos *Etxean geratuko naiz*, para conocer cómo estaban viviendo la situación los espectadores más jóvenes. La iniciativa recibió más de 550 fotografías y, para agradecer esa respuesta, en 3 kluba crearon la canción “Eskerrik asko” y formaron un mosaico del logo con las fotos recibidas. La programación de ETB3, además, contó con espacios específicos sobre las medidas de higiene y seguridad frente a la covid-19.

Durante el año, 3 kluba ha estrenado dibujos animados y nuevos programas, entre ellos “Erronkan”, con retos entre centros escolares; “Lur eta Amets, hau bai abentura”, espacio que combina dibujos animados y una competición en familia; y “Txac Planet”, un programa para acercar el mundo de la programación informática a los más pequeños. Como no, durante todo el año no han faltado los programas de “3 Ene Kantak” y estrenos de películas de animación en euskera.

3 kluba, además, ha reforzado su canal de Youtube y ha continuado con su apuesta por los soportes digitales. Así, todos los dibujos animados de ETB3 también están en la app de 3 kluba y en las televisiones conectadas. Asimismo, se están estrenando dibujos animados en las plataformas digitales antes de su emisión en televisión.

Por último, el espacio para felicitar el cumpleaños a los miembros del club sigue cosechando un gran éxito y, por supuesto, no faltan los sorteos y regalos.



Covid-19aren pandemiaren inguruko albisteek hedabideak bete dituzten urte honetan, eitb.eus-ek atal bat eskaini dio osasun-krisialdiari, uneoro eguneratutako datuekin, herriz herriko egoerarekin eta grafiko deigarriekin, besteak beste. Horri lotuta, benetako informazioa bultzatzeko eta koronabirusarekin lotutako buloak gezurtatzeko asmoz, *Koronabuloak* ekimena jarri zuen abian, Maldita.es eta VOST Euskadiren laguntzarekin. Eskaintza oso honi esker, eitb.eus-ek audientzia handitzea lortu du berriro 2020an. Igoera oso nabarmena izan da, batez ere pandemiaren lehen hilabeteetan, biztanleria konfinatuta zegoen garaian. Aipatzekoa da, halaber, euskarazko atarian eguneko erabiltzaile bakar kopurua igo egin dela, eta, baita, oro har, webnguneare eguneko batez bestekoa ere.

Fikzioak eta umoreak leku garrantzitsua izan dute eitb.eus-en 2020an. Ekainean “Pikuak” webseriea estreinatu zen, arrakasta handia eskuratuz. Urte amaieran, berriz, ETB1en eta eitb.eus-en, Nahieran eta telebista konektatuetan, “Alardea”, “Hondar Ahoak” eta “Altsasu” telesailen txanda izan zen. Halaber, “Vaya Semanita Xtream” umorezko saio berria estreinatu zuten, euskaraz eta gaztelaniaz. Plataforma guztietan (webgunea, aplikazio mugikorrak, smart tv eta sare sozialak) eskura daiteke.

Horrezaz gain, eitb.eus-ek aukera eman du kultur ekitaldiak zuzenean ikusteko, hala nola Loraldia jaialdia, zientziarekin lotutako hitzaldiak, pilota partidak, arrauna eta txirrindularitza probak, tartean Tourra eta Giroa. Halaber, eitb.eus izan da Ignacio Ellacuria eta beste lau jesuiten hilketaren epaiketa zuzenean eman duen hedabide bakarra.

Sare sozialetan, bestalde, EITB_Albisteak eta EITB_Noticias Telegram kanalak estreinatu dira. Horrela, zuzenean jaso daiteke mugikorrean, tabletean edo PCan Euskal Herrian eta munduan gertatzen denaren azken ordua.












En un año en el que la pandemia de la covid-19 ha copado los medios de comunicación, eitb.eus ha dedicado una sección a la emergencia sanitaria, con datos actualizados en todo momento, la situación pueblo a pueblo y gráficos muy visuales, entre otros contenidos. Además, con el objetivo de impulsar la información veraz y desmentir bulos relacionados con el coronavirus, puso en marcha la iniciativa *Coronabulos* en la que contó con la colaboración de maldita.es y VOST Euskadi. Gracias a su completa oferta, eitb.eus ha conseguido aumentar, nuevamente, su audiencia en 2020. La subida ha sido muy notable, principalmente durante los primeros meses de la pandemia, en los que la población estuvo confinada. Destaca, igualmente, el incremento de usuarios únicos al día en el portal de euskera y también el de la media diaria en general.

La ficción y el humor han tenido un lugar relevante en eitb.eus en 2020. En junio se estrenó la webserie “Pikuak” con mucho éxito; y a finales de año fue el turno de series como “Alardea”, “Hondar Ahoak” y “Altsasu”, todas ellas en ETB1 y en eitb.eus, además de en EITB A la Carta y las televisiones conectadas. Igualmente, se estrenó el nuevo programa de humor “Vaya Semanita Xtream”, tanto en euskera como en castellano. VSX se encuentra disponible en todas las plataformas (web, aplicaciones móviles, smart tv y redes sociales).

eitb.eus ha brindado, asimismo, la oportunidad de disfrutar en directo de eventos culturales como el festival Loraldia, charlas relacionadas con la ciencia y también partidos de pelota, remo o pruebas ciclistas, entre ellas el Tour y el Giro. Asimismo, ha sido el único medio que ha retransmitido en directo el juicio por el asesinato de Ignacio Ellacuria y otros cuatro jesuitas.

En redes sociales, se han estrenado los canales EITB_Albisteak y EITB_Noticias en Telegram. De este modo, se puede recibir directamente en el móvil, tablet o PC la última hora de lo que ocurre en Euskal Herria y en el mundo.

30. urtemugaren urtea izan da 2020 Gaztearentzat. Pandemiak ekitaldi guztiak nahi bezala ospatzen utzi ez badie ere, ekitaldi sorta eta ekimen berezi asko egin dira *Gure kontu* lelopean. Hasteko, Irratiaren Mundu egunean entzuleei bozgorailu deigarriak oparituz ekin zieten ospakizunei.

Inauteriak musikaz girotzeko Gazteak kamioi ibiltaria jarri zuen errepidean. Lehen geldialdia Gasteizen egin zuten DJ Davilarekin eta ETS taldearekin. Donostian Xabi Solanoren kontura izan zen kontzertua eta DJ saioa Oihan Vegarekin. Tolosako inauterietan, DJ Txurruk eta Oihan Vegak ipini zuten musika kamioitik. Yogurina Borovak ikuskizuna eskaini zuen Triangelu plazan.

Martxoaren 21ean, 30. urteurrenaren egunean, eta itxialdiaren erdi-erdian, etxeko egonaldia arintzeko asmoz, Oizeder Mayo eta Oihan Vega Gazteako esatariak balkoira atera ziren, musika kalera ateratzeko. Zuzenean instagram eta irrati bidez eskaini zuten saioa.

Donostiako Victoria Eugenia antzokiak hartu zuen Maketa Lehiaketaren final handia ekainean. Antzokian bertatik bertara ez ezik, finala, zuzenean, Gazteako webgunean jarraitu ahal izan zen, eta baita Youtuben ere, lehenengo aldiz. Raitxek eraman zuen 5000 euroko saria.

Gaztearen 30. urteurrenean, Pello Reparaz gidari duen Zetak taldeak "Hegan" abestia oparitu zion EiTBko irratiari. Zetak taldeak akustikoan jo zuen abestia Tabakalerako Prisman. "Gu" irratsaio berezia eskaini zuen Gazteak bertatik eta irratsaioaren baitan eskaini zuen emanaldia Zetakek. Publikoa eta Gaztearen lagunak, edukiera mugatuarekin bildu ziren ekitaldira.

Urriaren 30ean hasita, kontzertu-esperientzia desberdinak bizitzeko aukera eskaini du hilabetero Gazteak, Gaztea 30-30-30 ekimenean. Hilabeteko 30. egunean izan dira kontzertu hauek, eta 30 pertsonentzako bizipen berezi eta pertsonalak eskaintzea izan da helburua. Nogen, Gatibu eta Zetak izan dira lehen hiru emanaldietako protagonistak.

Azkenik, Gazteak bere klasikoetako bat berreskuratu du urte berezia borobiltzeko: Gaztea Sariak. Donostiako Kursaal aretoan eta ETB1 eta eitb.eus bidez jarraitzeko aukera izan zen Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak aurkeztutako ekitaldia. Zetak, Izaro, Skakeitan eta Sua izan ziren nagusi Gaztea sarietan. Itziar Ituño eta Berri Txarrak ere nabarmendu zituzten, eta Iñigo Muguruza omendu zuten.



2020 ha sido el año del 30 aniversario de Gaztea. Debido a la pandemia no han podido celebrar como es debido la efeméride, pero finalmente, a lo largo del año se han podido llevar a cabo muchas actividades e iniciativas bajo el lema *Gure kontu*. Comenzaron regalando unos llamativos altavoces a sus oyentes con motivo del Día Mundial de la Radio.

El siguiente reto consistió en ambientar con música los carnavales utilizando para ello el camión itinerante de Gaztea. Realizaron la primera parada en Vitoria-Gasteiz con DJ Davila y el grupo ETS. También estuvieron en Donostia con Xabi Solano y Oihan Vega. En Tolosa, la sesión de DJ corrió a cargo de Oihan Vega y Txurru, mientras que Yogurina Borova ofreció su espectáculo en la plaza del Triangulo.

El 21 de marzo, día del 30º aniversario y en pleno confinamiento, con la intención de aliviar el encierro en casa, los locutores de Gaztea Oizeder Mayo y Oihan Vega salieron al balcón a pinchar música en directo. El programa se pudo seguir en la radio y en instagram.

La final de Gaztea Maketa Lehiaketa se celebró en junio en el teatro Victoria Eugenia de Donostia. Con aforo limitado, se pudo seguir en directo a través de la web de Gaztea y también, por primera vez, en Youtube. El grupo Raitx se llevó el premio de 5000 euros.

Con motivo del 30 aniversario, el grupo Zetak de Pello Reparaz regaló a Gaztea la canción "Hegan". La banda interpretó el tema en acústico en el área Prisma de Tabakalera dentro del programa radiofónico "Gu", que se emitió en directo desde el centro cultural de Donostia y que contó con la presencia de amigos y público invitado.

Desde el 30 de octubre, Gaztea ofrece la posibilidad de disfrutar de un concierto-experiencia cada mes a través de la iniciativa Gaztea 30-30-30. Las citas son el día 30 de cada mes y cuentan con la asistencia de 30 personas. Nogen, Gatibu y Zetak han sido los protagonistas de los tres primeros conciertos.

Por último, en un año tan especial, Gaztea ha querido recuperar un clásico, los premios Gaztea Sariak, que se celebraron en el palacio Kursaal de Donostia. La gala fue presentada por Aitziber Garmendia y Jon Plazaola, y se pudo seguir en directo en ETB1 y eitb.eus. Entre los galardonados estuvieron Zetak, Izaro, Skakeitan, Sua, Itziar Ituño y Berri Txarrak. También se rindió homenaje a Iñigo Muguruza.


























Nobedadeekin hasi zuen urtea Euskadi Irratiak. Urtarrilean hiru orduko magazin berria estreinatu zuen: “Baipasa”. Olaia Urtiagak gidatuta, astelehenetik ostiralera da entzungai, 16:00-19:00ak bitartean.

Otsailean, Irratiaren Egunean, Euskadi Irratiak Tabakalerako sarrerara eraman zuen bere programazioa. “Faktoria”, “Kantu Kontari” eta “Baipasa” bertatik egin ziren. Entzuleak hurbildu ahal izan ziren eta musikak ere tartea izan zuen egun berezi honetan, Gatibu eta Olatz Salvadorrekin.

2020ko udako programazioa suziria piztuz jarri zuen abian Euskadi Irratiko lantaldeek, piztu ez ziren txupinazoei keinu eginez. Ospatu ez ziren jaietan, atzeratu ziren kirol-lehiaketetan eta egunean eguneko albisteen berri ematen, entzuleen etxeetatik gertu egon nahi izan zuen, udan ere, EITB Taldeko irratiak.

Irailean, denboraldia berriarekin zenbait aldaketa nabarmen izan ziren. Maite Artolak “Faktoria”ren informazio-tartearen gidaritza utzi zuen eta Iñaki Guridik hartu zuen eginkizun hori. Artolak, berriz, ordutik 13:00etako “Goizak Gaur” albistegia zuzentzen du. Albistegiei dagokienez, “Mezularia” saioak editore berria estreinatu zuen, Oihane Perez, eta Lurdes Arrizabalagak ematen dio amaiera jardunaldiari “Egun Bete” albistegiarekin. Asteburuetan, Igotz Alkortak dakartza azken berriak. Manu Etxezortuk jarraitzen du “Faktoria Magazina” gidatzen, Maider Segurolaren laguntzarekin, Asteburuko “Amarauna” magazinaren ardura, halaber, Nagore Telleriarena da.

Urrian ekin zion denboraldiari “Ekosfera” saioak, Donostiako Cristina Enea Fundazioan irratsaio berezia eginez. Klima aldaketari eta trantsizio ekologikoari eskainitako tartea handikiro hasi zuten, Guillermo Roa kazetaria gidari zela.

Bestalde, Euskadi Irratian Jon Rahm aukeratu zuten 2020 urteko euskal kirolaririk onena. Barrikako golf jokalariak BMW eta Memorial Tournament torneoak irabaztearekin batera, munduko golf jokalarien zerrendako aurreneko posturaino iristea lortu du amaitu berri den urtean.




Euskadi Irratia comenzó el año con novedades en su programación. En enero estrenó “Baipasa”, un magazine de tres horas conducido por Olaia Urtiaga de lunes a viernes entre las 16:00 y las 19:00 horas.

En febrero, Euskadi Irratia conmemoró el Día de la Radio llevando su programación al hall de Tabakalera. Los oyentes que se acercaron hasta allí pudieron ver in situ cómo se realizan los programas “Faktoria”, “Kantu Kontari” y “Baipasa”, y disfrutar de la música en directo de Gatibu y Olatz Salvador.

El estreno de la programación de verano se escenificó con el lanzamiento de un chupín, realizando así un guiño al verano atípico que tuvimos, sin chupinazos y sin fiestas. En el periodo estival, la emisora del grupo EITB continúo estando cerca de sus oyentes, informándoles día a día de la actualidad y de las competiciones deportivas que fueron pospuestas por el confinamiento.

En septiembre, la nueva temporada trajo algunos cambios destacados. Maite Artola dejó de estar al frente del espacio de información de “Faktoria”, cuyo responsable es ahora Iñaki Guridi, para pasar a conducir el informativo del mediodía “Goizak Gaur”. También hubo cambios en los informativos de la tarde –Oihane Perez es la editora de “Mezularia” y Lurdes Arrizabalaga del programa “Egun Bete”–, y del fin de semana –la dirección corre a cargo de Igotz Alkorta–. El magazine “Faktoria” continúa presentado por Manu Etxezortu, acompañado de Maider Segurola. Por su parte, Nagore Telleria es la responsable de “Amarauna” los fines de semana.

En octubre retomó su nueva andadura “Ekosfera”, espacio sobre el cambio climático y la transición ecológica, de la mano del periodista Guillermo Roa. Comenzaron a lo grande, con un programa especial desde la Fundación Cristina Enea de Donostia.

Por otra parte, Euskadi Irratia nombró al golfista Jon Rahm como mejor deportista vasco de 2020, año en el que además de ganar los torneos BMW y Memorial Tournament, ha conseguido situarse en los primeros puestos del ranking de los mejores golfistas del mundo.



Radio Euskadik Donostiako Bretxa Azokan ospatu zuen, entzule eta gonbidatuekin, Irratiaren Nazioarteko Eguna. “Boulevard” Dani Alvarezekin eta “Boulevard Magazine”ko lagunak ere, Miriam Duque eta Iñigo Lejarza buru zirela, Donostiatik aritu ziren. Kaleko set horretan egin zuten irratsaioa, arratsaldean, halaber, Galder Perezek (“Graffiti”) eta Eva Caballerok (“La Mecánica del Caracol”).

Bestalde, Bartzelonako Pepi Labrador izan zen 2020an Radio Euskadiko Bakarrizketen III. edizioaren irabazlea. Finaleko gala ekainean izan zen. Berezia izan zen ekitaldia, pandemiak hala baldintzatuta, eta Sergio Arrospidek eta Galder Perezek aurkeztu zuten.

Udako programazioak ere ekarri zuen nobedaderik. Joseba Martinek, esaterako, “La Terraza del Mar” musika saioa egin zuen, kulturaren hainbat arloko jendearekin elkarrizketa tartea.

Irailean, ikasturte berriarekin, Radio Euskadiren albistegien atalak aldaketa nabarmenak izan zituen. Hamaika urteren ondoren, Dani Alvarezek “Boulevard” saioa utzi zuen eta Ander Arzakek ordezkatu zuen zeregin horretan. Alvarezek orain “Boulevard Magazin”aren ostean entzungai dagoen “Crónica de Euskadi” berritua aurkezten du. “Ganbara” Euskadiko irrati-gauen albistegi dekanoa ere berritu zen eta Ainara Torre du gidari. Asteburuetan, berriz, Jose Luis Fonseca da albistegi nagusiaren arduraduna.

Horrez gain, abenduan Amaia Artetxeren eta Joseba Martinen eskutik “El Local de la Jungla” etorri zen. Musika-edukiak ikuspuntu berritzaile, egungo eta konprometitu batetik eskaintzen dituen irratsaioa.




Radio Euskadi celebró el Día Mundial de la Radio en compañía de oyentes e invitados, trasladando al Mercado de La Bretxa de San Sebastián la emisión de sus principales programas: el informativo “Boulevard” de Dani Álvarez, el magazine que conducen a continuación Miriam Duque e Iñigo Lejarza, “Graffiti” con Galder Pérez y “La Mecánica del Caracol” dirigido y presentado por Eva Caballero.

Por otra parte, la catalana Pepi Labrador ha sido la ganadora de la III. Edición del Concurso de Monólogos de Radio Euskadi. La gala final se celebró en junio, condicionada por la pandemia, y fue conducida por Sergio Arrospide y Galder Pérez.

En verano, los oyentes pudieron disfrutar de un nuevo programa, “La Terraza del Mar”, de la mano de Joseba Martin, con música y entrevistas a personas destacadas del mundo de la cultura.

En septiembre, los informativos de la emisora arrancaron con importantes novedades. Así, tras once años, Dani Álvarez dejó “Boulevard” para pasar a dirigir y presentar un renovado “Crónica de Euskadi”. Ander Arzak es ahora el responsable del “Boulevard informativo” y Ainara Torre de “Ganbara”, informativo decano de las noches que también se ha remodelado. José Luis Fonseca está al frente del informativo principal de los fines semana.

Asimismo, desde diciembre Amaia Artetxe y Joseba Martin presentan “El Local de la Jungla”, programa que ofrece contenidos musicales desde un punto de vista novedoso, actual y comprometido.

## Radio Vitoria

EiTBren Gasteizko egoitzako ateak zabal-zabalik egon ziren Irratiaren Nazioarteko Egunean. Radio Vitoriako entzuleek bertara hurbildu eta irratia nola egiten den zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Estudioan eta erredakzioan lanean diharduten kazetari eta teknikariekin hitz egiteaz gain, elkarrekin mokadutxo bat hartu ahal izan zuten. Horrekin batera, Radio Vitoriako lankideek irratiarekin duten harremanaz galdetuko zieten herritarrei.

Martxoan, Puro Relajo taldeak kontzertua eskaini zuen Probintzia plazan Radio Vitoriaren 85. urtemuga ospatzeko. Ekitaldia Aratz Goikoetxeak eta Rakel Navarrok aurkeztu zuten.

Apirilean, San Prudentzio bezperan eta jairik ospatu ez bazen ere, saio berezia gidatu zuten Gema Espinosak eta Aratz Goikoetxeak. Bertan, Radio Vitoriako entzuleek erretretaz eta danborradaz gozatu ahal izango zuten Probintzia plazan egongo balira bezala.

Udan, Gasteizko Jazzaldiak, 44. edizioa bertan behera utzita, bertako eta nazioko taldeekin kontzertu ziklo bat antolatzea erabaki zuen, Jazz VG Club jaialdia, hain zuzen ere. Radio Vitoria, Arabako kultura sustatzaile, ekitaldi horren babesle bihurtu zen. Hartara, uztailean, Jazz VG Club jaialdiari jarraipena egin eta egunero jazz-saio bat eta kontzertuak eman zituen Joseba Cabezasen eta Mikel Carrilloren eskutik.

Bestalde, Roberto Flores eta Paula Gaton arduratu ziren FesTVal jaialdiaren itxiera galaren kontakizunaz. Gainera, Radio Vitoriak saio bereziak egin zituen egunero Lakua hoteletik jaialdiaren berri emateko.

Radio Vitoriak, udazkeneko denboraldi berrian, "Radio Vitoria Gaur" irrati bloke sendoaren alde egiteko apustuarekin jarraitu zuen. Maritxu Diezek gidatzen du lehen tarte informatiboa, eta Pilar Ruiz de Larreak magazinaren zatia. "Herrian" programan Unai Ugartek tokiko informazioari eta udalerrietako gaurkotasunari zabalkundea ematea du helburu. Baina, batez ere, Arabako kirola eta jarraipena, Radio Vitoriaren ezaugarri nagusia, izango dira Arabako irrati dekanoaren programazioaren ardatz, orain arte bezala.




Las puertas de la sede de EITB de Vitoria-Gasteiz se abrieron para los oyentes el Día Internacional de la Radio. De esta manera, el público de Radio Vitoria pudo ver en directo el funcionamiento de la radio. Además de conversar con periodistas y técnicos que trabajan en los estudios y en la redacción, el público que acudió a la sede compartió un *hamaiketako* con ellos. Los compañeros de Radio Vitoria tuvieron la oportunidad de preguntarles sobre su relación con la radio.

En marzo se celebró un concierto con Puro Relajo en la plaza de la Provincia con motivo del 85 aniversario de Radio Vitoria, acto que fue presentado por Aratz Goikoetxea y Rakel Navarro.

En abril, a pesar de que no hubo celebración oficial de la víspera de San Prudencio, Gema Espinosa y Aratz Goikoetxea realizaron un programa especial. De esta manera, la audiencia de la emisora pudo disfrutar de la retreta y la tamborrada como si estuvieran en la plaza de la Provincia.

En verano, a falta de la 44ª edición del Jazzaldia de Vitoria-Gasteiz, se organizó el festival Jazz VG Club, un ciclo de conciertos con grupos locales y nacionales. Radio Vitoria, en su misión de impulsar la cultura alavesa, se convirtió en patrocinador de la iniciativa. Además de realizar el seguimiento del festival, ofreció un programa diario de jazz, y emitió los conciertos de la mano de Joseba Cabezas y Mikel Carrillo.

Roberto Flores y Paula Gatón se encargaron de la retransmisión de la gala de clausura del FesTVal. Además, como cada año, Radio Vitoria ofreció programas especiales desde el hotel Lakua durante todo el festival.

En la nueva temporada que dio comienzo en otoño, Radio Vitoria volvió a apostar por el bloque "Radio Vitoria Gaur", un espacio radiofónico consolidado que incluye una primera parte informativa a cargo de Maritxu Diez, y el magazine con Pilar Ruiz de Larrea. El programa "Herrian" que conduce Unai Ugarte continúa fiel a su cita con la información local y la actualidad de los concejos alaveses. Pero, sobre todo, Radio Vitoria es el punto de referencia para seguir la actualidad del deporte alavés.



## Sariak/Premios



EuroBasque 2019 Kazetaritza saria Ane Irazabal EITBko korrespontsalarentzat, *Awlad-Hesiak gaindituy* dokumentalarengatik.

Premio de Periodismo EuroBasque 2019 para la corresponsal de EITB Ane Irazabal por el documental *Awlad-Hesiak gainditu.*



eitb.eus-en *Eusko Legebiltzarrak 40 urte ditu* infografiak brontzezko domina bat eskuratu du ÑH20 sarietan.

La infografía de eitb.eus *El Parlamento Vasco cumple 40 años* ha ganado una medalla de bronce en los premios ÑH20.



Kazetaritza arloko Rikardo Arregi saria Arantxa Arza kazetariarentzat eta Felix Zubia medikuarentzat, Euskadi Irratiko "Osasun Etxea" irratsaioan pandemia garaian egindako lanagatik.

Premio de Periodismo Rikardo Arregi para la periodista Arantxa Arza y el médico Felix Zubia, por la labor realizada durante la pandemia en su programa "Osasun Etxea" de Euskadi Irratia.



Bigarren urtez, Grünenthal Fundazioak Pilar Ruiz de Larreak gidatzen duen "Radio Vitoria Gaur" magazina nabarmendu du, minaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko egindako lanagatik.

Por segundo año consecutivo, el magazine "Radio Vitoria Gaur" que conduce Pilar Ruiz de Larrea ha sido premiado por la Fundación Grünenthal, por su trabajo en la sensibilización del dolor.



Instituto Roche Fundazioaren Zehaztasuneko Medikuntza Pertsonalizatuan Kazetaritza saria Eva Caballero Radio Euskadiko kazetariari, gastronomia pertsonalizatuaren inguruan egindako saio bereziagatik.

Premio de Periodismo en Medicina Personalizada de Precisión, otorgado por la Fundación Instituto Roche, para la periodista de Radio Euskadi Eva Caballero, por el programa especial sobre gastronomía personalizada emitido en "La Mecánica del Caracol".

## Akordioak/Acuerdos




### FORTA-APIA

FORTAko kanaletan ingurumen-gaiek zabalkunde gehiago dute, Ingurumen Informazioko Kazetarien Elkartearekin (APIA) sinatutako lankidetza-protokoloari esker.

Los temas ambientales tienen mayor difusión en los canales de FORTA, gracias al protocolo de colaboración con la Asociación de Periodistas de Información Ambiental (APIA).



### EITB-Zinemaldia

Zinemaldiarekin duen konpromisoa berritu ondoren, 2020an ere EITBk zine jaialdiari jarraipen handia egin zion taldeen hedabide guztietan.

Al igual que todos los años, EITB renovó su compromiso con el Festival de San Sebastián y realizó un amplio despliegue para seguir el certamen.



### EITB-Euskadiko Orkestra

Sortu zirenetik, EiTBko hedabideak Euskadiko Orkestraren jardueren sustapen leiho izan dira eta aurten, pandemiaren eraginez, are gehiago. Publikoarekin aurrez aurre topo egitea ezinezkoa izanik, zortzi kontzertuko denboraldia osatu zuen orkestrak telebistan. Horrez gain, Izarorekin eta Huntzarekin grabatutako bideoklipak zabaltzen lagundu zuen EITBk.

El trabajo conjunto que EITB y Euskadiko Orkestra realizan desde su creación se ha visto reforzado este año con la pandemia. Ante la imposibilidad de reencontrase con su público, la orquesta realizó una pequeña temporada de ocho conciertos en televisión. Además, EITB colaboró en la difusión de los videoclips grabados con Izaro y Huntza.

## Telebista / Televisión

Iturria/Fuente: Kantar Media







## Telebista autonomikoen rankinga / Ranking de televisiones autonómicas




## Irratia / Radio

Iturria/Fuente: CIES

2020. EAE+Nafarroa al.-os. / CAV+Navarra lu.-vi.




Taldeen kontsumoa. Penetrazioa / Consumo grupos. Penetración 2020. EAE al.-ig. / CAV lu.-do.




1.- SER, C40, Dial, Los 40 Dance, Los 40 Classic
2.- COPE, C100, Rock FM, MegaStar
3.- Onda Cero, Europa FM, Melodía FM
4.- RNE, R3, R5, Radio Clásica

## eitb.eus

Iturria/Fuente: OJD Interactiva eta Google Analytics

Erabiltzaile bakarrak / Usuarios únicos



### EITB TALDEAREN USTIAPENEKO GASTU KONTSOLIDATUAK BETEARAZTEA

### EJECUCIÓN GASTOS CONSOLIDADOS DE EXPLOTACIÓN GRUPO EITB

| EITB TALDEA KONTSOLIDATUA<br>GRUPO EITB CONSOLIDADO | 2018<br>Egina<br>Real | 2019<br>Egina<br>Real | 2020<br>Egina<br>Real | % 2020<br>Guztira<br>Total | 2020-2019<br>Aldea<br>Diferencia | 2020<br>Gehikuntza<br>Incremento |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hornikuntza<br>Aprovisionamientos | 47.328.238 | 49.735.079 | 50.387.318 | 33,80% | 652.239 | 1,3% |
| Ustiapen gastuak eta beste batzuk<br>Gastos de explotación y otros gastos | 28.675.076 | 29.795.718 | 30.525.890 | 20,47% | 730.172 | 2,5% |
| Pertsonal gastuak<br>Gastos de personal | 61.340.815 | 65.884.931 | 68.178.691 | 45,73% | 2.293.760 | 3,5% |
| GASTUAK GUZTIRA<br>TOTAL GASTOS | 137.344.129 | 145.415.727 | 149.091.899 | 100,00% | 3.676.172 | 2,5% |




Hornikuntza
Aprovisionamientos

Ustiapen gastuak eta beste batzuk
Gastos de explotación y otros gastos

Pertsonal gastuak
Gastos de personal



### EITB TALDEAREN PUBLIZITATE DIRU-SARRERAK BETEARAZTEA (kontsolidatu gabe)

### EJECUCIÓN INGRESOS PUBLICIDAD GRUPO EITB POR SOCIEDADES (sin consolidar)

| SOZIETATEA<br>SOCIEDAD | 2018<br>Egina<br>Real | % 2018<br>Guztira<br>Total | 2019<br>Egina<br>Real | % 2019<br>Guztira<br>Total | 2020<br>Egina<br>Real | % 2020<br>Guztira<br>Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ETB | 8.493.910 | 64,0% | 8.618.045 | 64,5% | 8.390.506 | 66,7% |
| IRRATIAK | 4.411.215 | 33,3% | 4.351.680 | 32,6% | 3.864.779 | 30,7% |
| EITBNET | 359.419 | 2,7% | 395.239 | 3,0% | 331.963 | 2,6% |
| GUZTIRA / TOTAL (2) | 13.264.544 | 100% | 13.364.964 | 100% | 12.587.248 | 100% |

2018 PUBLIZITATE DIRU-SARRERAK SOZIETATEKA
INGRESOS DE PUBLICIDAD POR SOCIEDADES 2018




2019 PUBLIZITATE DIRU-SARRERAK SOZIETATEKA
INGRESOS DE PUBLICIDAD POR SOCIEDADES 2019




2020 PUBLIZITATE DIRU-SARRERAK SOZIETATEKA
INGRESOS DE PUBLICIDAD POR SOCIEDADES 2020




IRRATIAK
EITBNET
ETB

eitb

Txostena **2020** Balance